

ELKARLANEKO DEIALDIA: UPV/EHU eta TABAKALERA

1. AURKEZPENA

Artearen, zientziaren eta teknologiaren ikerketa, sormena eta profesionalizazioa euskal testuinguru artistikoan sustatu guran, Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak eta Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa Masterrak egonaldi programa bat jarri dute abian.

Tabakalerak, arte sorkuntzarako gunea den aldetik, egonaldi programa batzuk dauzka artista, sortzaile eta kultur eragileei sostengua emateko. Programa honen helburu nagusia da arte prozesuetarako laguntza eta sostengua ematea, bai alde kontzeptualean eta bai ekoizpenean. Gainera, Medialab abian jarri zuenetik, artisten, zientzialarien eta jakintzaren beste arlo batzuetako espezialisten arteko lankidetzaren ere sustatzen du, Arte, Zientzia, Teknologia eta Gizarte-ildoen bitartez.

Elkarlaneko programa berri honekin, zientzia eta teknologiarekiko topagunea bilatzen duten arte proiektuak sustatuko dira, eta proiektuok garatzeko aliantzak bilatuko dira gure ingurunekeko ikerguneekin.

2. HELBURUA

Deialdi honen helburua da bost egonaldi artistiko egitea Donostiako Tabakalera KGNZn.

Deialdi hau zuzenduta dago EAEn diharduten artista, ikertzaile eta komisarioei. Zehatzago esanda, Arte, Zientzia eta Teknologiaren (AZT) eremua ikertu nahi duten eta artegintzan, ikerketan eta komiariotzan jardutearekin batera beren ibilbide artistikoa zabaldu gura dutenei.

Lau arte proiektu hautatuko dira, eta horietaz gain, komisariotza edo ikerketa proiektu bat, besteei lagun egingo diena.

Egonaldiak sei astekoak izango dira eta 2023ko maiatzetik ekainera bitartean egingo dira. Denborahorretan beren proiektuak garatzeko tokia, testuingurua eta denbora emango zaizkie hautatutako pertsoneri. Koordinazio laguntza izango dute, bai eta zientzialari edo ikertzaileen laguntza ere, beren proiektuetarako behar den ezagutza teknikoa eskura izateko.

Egonaldian egitendiren proiektuak erakusketakolektibobatean aurkeztu ahalizango dira Tabakalera, 2023ko azaroan.

Jasotako eskari guztien artetik, **arte sorkuntzako lau proiektu hautatuko dira.**

Egonaldietako bat proposamen teoriko baterako izango da. Proiektu horrek gainerako egoiliarren amaierako erakusketaren komisariotza egin ahal izango du.

3. HAUTAGAI/PARTEHARTZAILEAK

Deialdi hau zuzenduta dago Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) arte garaikidearen arloan lanaldi osoan edo partzialean arte proiektuak profesionalki garatzen diharduten edo sektore horretan karrera profesionala hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridikoei.

4. EPAIMAHAI AETA HAUTAKETA IRIZPIDEAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak eta Tabakalera epaimahai bat osatuko dute, bi erakundeen ordezkariekin, proiektuak ebaluatzen, honako irizpide hauen arabera:

- Berritasuna eta originaltasuna. Proiektuak AZTen arloko jarduera eta testuinguruei egiten dien ekarpena.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren interesa ikuspegi zientifiko eta teknologikotik eta haren gaitasuna diziplinen arteko lankidetzaz sustatzeko.
- Proiektuaren koherentzia, eta hautagaiak orain arte egindako ibilbidearen koherentzia, hala bakarka nola kolektiboan, beste artista edo eragile batzuekin batera.
- Proiektuaren bideragarritasuna eta egokitasuna Tabakalerak dauzkan baliabideetarako eta bertako lan espazioetarako.

Nahitaezkoa da ingeles maila ertaina edo handia izatea.

UPV/EHUK eta Tabakalerak itxaron zerrenda bat egingo dute, lehen fasean hautatutako pertsonen arrazoi pertsonalengatik egonaldia onartu ezingo balute ere.

Epaimahaiak bertan behera utzi ahal izango du deialdia uste badu aurkeztutako proiektuetako batek ere ez dituela baldintzak betetzen.

5. EGONALDIRAKO LAGUNTZA

Programak honako prestazio hauek emango dizkio hautatutako pertsona bakoitzari:

1. Osasunasegurua egonaldiosorako.
2. Guztiz hornitutako apartamendua (sukaldea, komuna eta logela, lan espaziotxiki batekin eta wifi bidezko Internet konexioa) Tabakaleran.
3. Lan estudio bat artistentzako espazioan Tabakaleran. Horretarako, Tabakalerak baditu ezaugarri desberdinetako estudio batzuk, oinarriko altzariez hornituak, gertuko ur hartunearekin, elektrizitateaz, argiaz eta wifi bidezko Internet konexioaz. Estudioa esleituko da kasuan kasuko proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta.

4. Tabakaleraren baliabide guztiak erabiltzeko aukera, Medialaben funtsak eta baliabideak barne.

5. 1.500 € (1.000 € egonaldiaren hil bakoitzeko, zergak eta atxikipek barik), egonaldiaren sei asteetarako dieta eta mantentze gastuetarako.

6. 1.500 € -rainoko laguntza egonaldian zehar proiektua garatzeko, aurrekontua aurretik aurkeztuta eta onartuta.

9. Proiektua garatzeko lagun egite artistiko eta kontzeptuala, eta bitartekaritza lana proiektua aurkezteko Tabakalerakin kolaboratzen duten arlozientifiko eta teknologikoko eragileei.

Deialdi honetan ez da onartuko talde edo kolektibo batek baino gehiagok aurkeztutako proiekturik.

6. EGONALDIAREN IRAUPENA

Egonaldiak **sei astekoak** izango dira, eta **2023ko maiatzaren 22tik ekainaren 30era** bitartean egingo dira.

7. PARTEHARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetan eskari bat aurkezten duenak honako konpromiso hauek hartuko ditu:

- Hautagaiari eskaria onartzen bazaio eta gero uko egiten badio, lehenbailehen jakinarazi beharko du.
- Antzematen bada egonaldiako adostutako epean onuraduna ez dagoela lan espazioan horretarako justifikaziorik gabe, bertan behera utzi ahalizango dira egonaldia eta laguntzak.
- Tabakaleratik pasatu ondoren, egoiliar bakoitzak egonaldiaren gaineko txosten bat idatzi beharko du.
- Tabakalerak egonaldia bera edo bertatik sortzen diren jarduerak sartuko ditu programari eta lan espazioen esleipenari buruz egiten duen programazioan.



- Egonaldia arte lan bat edo argitalpen bat sortzeko egiten bada, Tabakaleraren izena azaldu beharko da kredituetan.

8. AURKEZTU BEHARREKODOKUMENTAZIOA

Eskariak aurkezteko epea **2023ko martxoaren 31n** amaituko da. Deialdiaren ebazpena **2023ko apirilaren 5a** baino lehen argitaratuko da. Argitaratu ondoren, aukeratutako hautagaiak astebete izango du egonaldia onartzeko.

Beherago aipatzen den dokumentazioa bidali beharko da helbide honetara: eculturalbellasartes@ehu.eus Hauek bidali beharko dira, hurrenkera honetan:

1. Harremanetarako datuak: izen-deiturak, helbidea, helbide elektronikoa, telefonoa.
2. *Statement*-a (300 hitz), landosierra (5 orri) eta balizki lanildoak artegintzaren eta zientzia eta teknologiaren arteko gurutzaketaren inguruan.
3. Proiektuaren ilustratzen lagundezakeen edozein irudieraren material.
4. Aurretik egindako gutxienez lau obraren aurkezpena, bakoitzaren irudiekin.
5. *Curriculum vitae* eta biografia laburra (500 berba).

Dokumentazio guztia PDF bakar batean aurkeztu beharko da (gehieneko tamaina: 10 MB/10 orri), **euskaraz edo gaztelaniaz**. Hautagaiak aurkezten ez badu dokumentazio hori edo eskatzen zaion beste edozein, epaimahaiak baztertu ahal izango du proiektua.

Artxiboaren izenak honako formatu hau izan beharko du:

_izena_deitura_Tabakalera-EHU; Adibidez: miren_etxaniz_Tabakalera-EHU.

9. JABETZAINTELEKTUALA

Hautagai edo parte hartzaile guztiek eta egonaldiako aukeratuak direnek ziurtatzen dute Tabakalerari helaraziko dioten dokumentazio grafiko, testual edo ikus-entzunezko guztia –dela eskariarekin batera bidaltzen dutena, dela proiektua deialdiko baliabideekin egiten dutenean aurkezten dutena– jatorrizkoa izango dela eta ez duela urratuko inoren jabetza intelektualeko eskubiderik. Beraz, hautagai eta parte hartzaile guztiak erantzule izango dira Tabakaleraren aurrean edo haren kolaboratzaileen aurrean inork erreklamaziorik jartzen badu material horien jabetza intelektualaren inguruan, eta kalte ordaina ordaindu beharko diete erakunde horiei horren ondorioz izan litzaketen kalte-galerengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari eurek emandako dokumentazio grafiko, testual edo ikus-entzunezkoa erabiltzeko, edozein euskarritan dela ere, baina bakarrik deialdi honetako laguntzen berri emateko eta haien bitartez egingo den proiektua ezagutarazteko.

Aurreko guztia hala izango da ezertan ukitu barik egileak dokumentazio grafiko, testual edo ikus-entzunezko horren gainean dauzkan eskubide moralak eta jabetza intelektualaren ondare eskubideak, horiek egilearenak izaten jarraituko baitute.

10. DATU PERTSONALEN BABESA

Oinarri hauek onartzean, hautagaiek edo parte hartzaileek baimena ematen diote Tabakalerari beren datu pertsonalak trata ditzan –bai eskaria aurkeztean ematen dituzten datuak eta bai, aukeratuak izanez gero, proiektua deialdi honetako baliabideekin egitean ematen dituzten datuak–, eskaria tramitzeko, laguntzen erabilera kudeatzeko eta laguntza hauekin egiten diren proiektuen zabalkundea egiteko.

Datu pertsonalok emango zaizkie legeak hala egitea agintzen duen erakunde edo organismo publikoei. Era berean, eta 11. klausulari jarraikiz, Tabakalerak onuradunen irudia eta izena beste batzuei eman ahal izango dizkie, bere ohiko komunikazio sistemen bidez eta edozein euskarritan, deialdi honetako laguntzen berri emateko eta haien bitartez egingo diren proiektuaren berrizabaltzeko.

Datu pertsonalok ematea ezinbestekoa da, eta, hortaz, haiek eman ezean ezinezkoa izango da deialdi honetan eskaria egin edo parte hartu.

Hautagaien edo parte hartzaileen datuak denbora mugatu batez baino ezdira gordeko, hau da, hautagaitzak baloratzeko eta laguntzen esleipena eta erabilera kudeatzeko behar den denboraz besterik ez, bai eta, Tabakalerak bere betebeharrak legalei aurre egiteko, datuok gordetzea ezinbestekoa den epe gehigarrian.

Nolanahi ere, hautagai edo parte hartzaileek eta onuradunek eskubide hauek izango dituzte: (i) eurei buruzko datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eta datuok transferitzeko. Eskubideok erabiltzeko, mezu bat bidali beharko dute helbide honetara: ecultural.bellasartes@ehu.eus; bestetik (ii), erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari edo eskumena duen beste edozein kontrol agintaritzari, bereziki interesdunak ezin izan baditu bere eskubideak baliatu.

11. IRUDIESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuta, laguntzen onuradunek baimena ematen diote esplizituki Tabakalerari (i) beren irudia kasuan kasuko baliabide teknikoek erregistratzeko (argazkian, bideoan etab.); eta (ii) irudi horiek eta beren izena erabiltzeko eta argitaratzeko Tabakaleraren webgunean edo bere edo bere laguntzaileen kontrolpeko bestelako euskarrietan, materialak izan ala ez, betiere deialdi honetako laguntzen berri emateko eta haien bitartez egingo den proiektua ezagutarazteko, eta horretarako besterik ez. Baimen horikendu ere eginahalizango diote gero.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetara aurkezte hutsak oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: eculturalbellasartes@ehu.eus